2026/2027

Graduondoko ikasketak

Unibertsitate masterrak

* Globalizazioa eta Garapena
* Garapena eta Nazioarteko Lankidetza

Etengabeko Prestakuntzako Masterra

* Nazioarteko Lankidetza eta Hezkuntza Askatzailea

Unibertsitate espezializazioak

* Nazioarteko Lankidetza
* Hezkuntza Askatzailea

Doktorego programa

* Garapenari buruzko Ikasketak

EHU
Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua
Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional
hegoa

Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua
Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional

Hegoa
Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua

EHU • Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre, 81
48015 Bilbao
Tel.: (34) 94 601 70 91

EHU • Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel.: (34) 943 01 74 64

EHU • Koldo Mitxelena Biblioteka
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel.: (34) 945 01 42 87

Hegoa eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) graduondoko prestakuntza eskaintzak eLankidetzaren (Lankidetzaren eta Elkartasunaren Euskal Agentzia) laguntza du.

www.hegoa.ehu.eus/eu
hegoa@ehu.eus
@hegoainstitutua.bsky.social
instituto-hegoa
@HegoaInstitutua

Hegoa Institutuari buruz

Hegoa, Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) institutu mistoa da, unibertsitate honek eta Hegoa elkarteak sortua. Bere lan esparrua giza garapena eta nazioarteko lankidetza sustatzea da, eta honako hau eskaintzen du:

- ikerketa eta analisia;
- informazio eta dokumentazio baliabideak;
- graduondoko irakaskuntza eta garapeneko eta lankidetzako unibertsitateko beste irakaskuntza programa batzuk;
- gaitasunen sorrera lankidetza gizarte ehuna indartzeko;
- aholkularitza teknikoa hainbat erakunde eta instituzio publikori;
- lankidetzako programak eta proiektuak.

Hegoaren misioa gizarte aldaketa eragitea da, eraikuntzaren, proposamenaren eta aplikazioaren bitartez. Pentsamendu kritikotik, esparru teorikotik eta giza eskubideen eta lankidetza eraldatzailearen aukeren prozesu eta estrategietatik abiatzen da, bizitzaren jasangarritasunerantz joatea ahalbidetzen baitute. Hegoa osatzen dugun pertsonek partekatzen dituzten balioak honako hauek dira: gizarte justizia, elkartasuna, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta aniztasun ideologikoa.

www.hegoa.ehu.eus/eu

Prestakuntza eskaintza

Hegoa Institutuko eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) graduondoko prestakuntza eskaintza 2026-2027 ikasturterako aurkeztuko dugu hemen: bi master mota daude, bi unibertsitate espezializazio eta doktorego programa bat.

Hauek dira bi titulu ofizialak: **Globalizazioa eta Garapena Masterra eta Garapena eta Nazioarteko Lankidetza Masterra**. Biek ematen dute titulazio ofiziala Europako Goi Mailako Hezkuntza Eremua (EGMHE) esparruan, eta aukera ematen dute ikerketa eta doktorego programak egiteko.

Bi master horiek lehenengo atal erkide bat dute, bi taldetan ematen dena; horietako bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Bigarren lauhilekoan, taldeak hautatutako masterraren eta hautazkoen arabera bereizten dira.

Gainera, bi masterretan derrigorrezkoa da Master Amaierako Lana (MAL) egitea.

Aurretik aipatutakoaz gain, Garapena eta Nazioarteko Lankidetzako ikasleek hiru hilabeteko gutxieneko curriculum praktikak egin beharko dituzte. Halaber, Globalizazioa eta Garapeneko ikasleek *curriculum* kanpoko praktikak egiteko aukera ere badago.

Bestalde, Nazioarteko Lankidetza eta Hezkuntza Askatzailea Etengabeko Prestakuntza Masterra izaera presentzialeko programa bat jarraitu ezin dezaketen pertsonei zuzenduta dago; izan ere, online egiten da. Master honetan *curriculum* kanpoko praktikak egiteko aukera ere badago.

Kasu honetan posiblea da Nazioarteko Lankidetza eta Hezkuntza Askatzailea Etengabeko prestakuntza osoa egitea (60 ECTS kreditu), edo, bestela, programa moduluka egitea. Bigarren aukera horri esker, espezializazio titulua lor daiteke (30 ECTS kreditu) Nazioarteko Lankidetzan edo titulu bat Hezkuntza Askatzailean. Bi modalitateetan egin behar da ikerketa aldi bat, master amaierako lana edo modulu amaierako lana.

Ikasketa hauetako edozein egiteko betekizunak EHUren webgunean kontsulta daitezke osorik. Masterren eta espezializazioen kasuan, honako hauek dira: edozein gradu titulu edo titulazio baliokide (diplomatura, lizentziatura, ingeniaritza, arkitektura), curriculum vitaea eta merezimenduen egiaztapena. Espediente akademikoa, motibazio gutuna, hizkuntzak ezagutzea, eta, hala badagokio, esperientzia profesionala edo boluntariotza baloratzen dira.

Azkenik, **Garapenari buruzko Ikasketen** Doktorego Programa honako hauei zuzenduta dago: doktorego tesia programari lotutako ikerketa ildo bati buruz egin nahi duten pertsonak. Gai horiek honako gai hauetan modu kritikoan sakontzera bideratuta daude: ekologia, aukerak, elikadura subiranotasuna, feminismoak, garapenerako lankidetza eta ekintza humanitarioa, gizarte eraldaketarako hezkuntza, ekonomia soziala eta solidarioa, trantsizio ekosozialerako teknologiak, migrazioak, gatazkak, demokrazia eta giza eskubideak, besteak beste.

Globalizazioa eta Garapena Masterra

Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) titulu ofizialen eskaintzaren parte da eta Hegoa Institutuak eta EHUko Ekonomia Aplikatuko Sailak koordinatzen dute.

Espezializazio akademikora bideratuta dago, bai eta globalizazioari eta garapen prozesuei lotutako fenomenoaren arloan ikertzaileak prestatzeari ere. Diziplinarteko izaera du eta garapenari buruzko ikasketen (Development Studies) tradizioaren menpe dago.

Masterrak oinarrizko bi gairen alderdi teoriko metodologikoak lantzen ditu: globalizazioa, harremanen eta prozesuen mundializazio gisa ulertua, alor ekonomikoan, sozialean, politikoan edo kulturalean; eta garapenari buruzko ikuspegi teoriko nagusiak, arreta berezia jarriz giza garapenean eta garapen jasangarrian. Horretarako, nazioarteko lankidetza kontuan har-

tzen du, bizikidetza pazifikoa eta mundu mailako garapena sustatzeko tresna gisa.

Ikasleek aukera izango dute espezifikoki aztertzeko garapen prozesuetako alderdi garrantzitsuenetako batzuk, hala nola generoa, pobrezia eta desparekotasuna, ingurumena, tokiko garapena, gobernagarritasuna, gatazkak eta giza segurtasuna.

Globalizazioa eta Garapena Masterrak, gainera, curriculumaz kanpoko praktikak egiteko aukera ematen du lankidetzan jarduten duten zenbait erakundetan.

Master honek ikerketara eta doktorego programetara sarbidea ematen du, bereziki Garapenari buruzko Ikasketak doktorego programara. Programa hori Hegoa Institutuak, Ekonomia Aplikatua Sailak, Metodo Kuantitatiboak Sailak, Soziologia eta Gizarte Langintza Sailak, Enpresa Zuzenbidea Sailak, Zuzenbide Zibila Sailak eta Gezki Institutuak eskaintzen dute.

Irteera profesionalak

Garapen eta lankidetza gaiei lotutako nazioarteko erakundeak eta erakunde publikoak, gobernuz kanpoko garapenerako erakundeak eta tokiko edo nazioarteko gizarte mugimenduak.

Oinarrizko informazioa

Irakaslekua	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Bilbo)
Modalitatea	Ikasgelakoa
Hizkuntza	Gaztelania eta/edo euskara
Gutxi gorabeherako prezioa	1.800 €
Egutegia	Irailetik ekainera
Eskola orduak/iraupena	60 ECTS / 1 ikasturte

Prestakuntza programa

Nahitaezko irakasgaiak

- Munduko ekonomia-sistemaren egitura eta dinamikoa. 6 ECTS
- Politikak eta nazioarteko harremanak. 3 ECTS
- Gizarte eta kultur transformazioak globalizazioan. 4 ECTS
- Garapenaren teoriak, estrategiak eta neurtzea. 4 ECTS
- Gizarte-zientzien ikerkuntzarako sarrera. 6 ECTS
- Garapena eta globalizazioari buruzko mintegia. 3 ECTS
- Master amaierako lana. 10 ECTS

Hautazko irakasgaiak

- Globalizazioa, lan-harremanak eta gizarte-babesa. 3 ECTS
- Mundu-merkataritza eta globalizazioa: Hegoaren eginkizuna. 3 ECTS
- Demokrazia, gobernantza, garapena eta nazioarteko lankidetza. 3 ECTS
- Generoaren ikuspegia garapenarako prozesuetan. 3 ECTS
- Gatazkak, segurtasuna eta garapena. 4 ECTS
- Garapen iraunkorrerako oinarriak, kontzeptuak eta bitartekoak. 3 ECTS
- Pobrezia eta pobretze-prozesuak munduko ekonomian. 3 ECTS
- Etika eta garapena. 3 ECTS
- Garapen-politikoen, planen eta programen baliospena. 4 ECTS
- Lurralde eta hiri-politika. 3 ECTS
- Gizarte-ekonomia politika ekonomiko eta sozialerako tresna moduan. 3 ECTS
- Ingurumen Politikak eta Lurraldea. 3 ECTS

Harremanetarako

Zuzendaria

Iker Etxano Gandariasbeitia ✉ iker.etxano@ehu.eus

Globalizazioa eta Garapena Masterreko koordinazio teknikoa

Usune Zuazo Martín

✉ hegoa.inst.formakuntza@ehu.eus ✆ (34) 946 01 70 47

Garapena eta Nazioarteko Lankidetza Masterra

Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) titulu ofizialen eskaintzaren parte da eta Hegoa Institutuak eta EHUko Ekonomia Aplikatuko Sailak koordinatzen dute.

Nagusiki garapenerako nazioarteko lankidetzaren esparruan ikasleei prestakuntza akademikoa eta profesionala ematea du helburu, eta erreferentzia nagusiak honako hauek dira: berdintasuna, pobreziaren aurkako borroka, giza garapena eta jasangarritasuna. Masterrak kalitatezko prestakuntza profesionala eta diziplina anitzekoa ematen du, garapenerako lankidetzan arituko direnen txertaketa pertsonala eta laneko txertaketa hobetzeko.

Masterraren helburua da garapen prozesuetan eragina duten eta nazioarteko lankidetza baldintzatzen duten fenomenoak aztertzea. Ibilbide luzeko eta esperientzia handiko irakasleek ematen dute, unibertsitatekoak nahiz lankidetza erakundeetan dihardutenak. Halaber, ikasketa programa osatzeko, nahitaezko praktikak egin

beharko dira hainbat herrialdetan, salbuespenak salbuespen, garapenerako lankidetzari lotuta.

Master honek ikerketara eta doktorego programetara sarbidea ematen du, bereziki Garapenari buruzko Ikasketak doktorego programara. Programa hori Hegoa Institutuak, Ekonomia Aplikatua Sailak, Metodo Kuantitatiboak Sailak, Soziologia eta Gizarte Langintza Sailak, Enpresa Zuzenbidea Sailak, Zuzenbide Zibila Sailak eta Gezki Institutuak eskaintzen dute.

Irteera profesionalak

Garapen eta lankidetza gaiei lotutako nazioarteko erakundeak eta erakunde publikoak, gobernuz kanpoko garapenerako erakundeak eta tokiko edo nazioarteko gizarte mugimenduak.

Oinarrizko informazioa

Irakaslekua	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Bilbo)
Modalitatea	Ikasgelakoa
Hizkuntza	Gaztelania eta/edo euskara
Gutxi gorabeherako prezioa	1.800 € *
Egutegia	Irailetik ekainera
Eskola orduak/iraupena	60 ECTS / 1 ikasturte

* Masterreko matrikulak ez ditu barne hartzen atzerrian egiten diren praktikek eragindako gastuak. Gastu horien zati bat (nazioarteko hegaldia soilik) Hegoak bere gain har dezake, baldin eta horretarako Lankidetza eta Elkartasunerako Euskal Agentzia-eLankidetzaren dirulaguntza badago, eta praktikak Hegoa Institutuak ezarritako denbora-esparruan eta ikaslea masterrean lehen aldiz matrikulatzen den ikasturtean egiten badira. Gainerako gastuak (EHUren nahitaezko asegurua, beharrezkoa izanez gero bisa, ostatua eta mantenua) praktikak egiten dituen pertsonaren kontura izango dira.

Prestakuntza programa

Nahitaezko irakasgaiak

- Munduko ekonomia-sistemaren egitura eta dinamikoa. 6 ECTS
- Politikak eta nazioarteko harremanak. 3 ECTS
- Gizarte eta kultur transformazioak globalizazioan. 4 ECTS
- Garapenaren teoriak, estrategiak eta neurtzea. 4 ECTS
- Gizarte-zientzien ikerkuntzarako sarrera. 6 ECTS
- Garapenarako lankidetza sistema. 4 ECTS
- Generoa eta garapenerako lankidetza. 3 ECTS
- Garapenarako lankidetza agenteak eta politikak. 6 ECTS
- Garapenerako lankidetza programak eta proiektuak. 4 ECTS
- Master amaierako lana. 6 ECTS
- Praktikak. 8 ECTS

Hautazko irakasgaiak

- Gatazkak, Birgaitzea eta ekintza humanitarioa. 3 ECTS
- Garapenerako hezkuntza. 3 ECTS
- Giza eskubideak eta garapenarako lankidetza. 3 ECTS
- Iraunkortasuna, Garapena eta Lankidetza. 3 ECTS

Aurreko urteetan praktika programan parte hartu duten erakunde batzuk honako hauek dira:

Alboan; Amnistía Internacional México; Amnistía Internacional Perú; ASOCOLVAS-Asociación de Colombianos en el País Vasco; AYNI-Grupo de Cooperación para el Desarrollo Social; BC3-Basque Centre For Climate Change; Bizilur; Calcuta Ondoan; CEAR-Comisión de Ayuda al Refugiado en Euskadi; CEPAL-Comisión Económica para América Latina y del Caribe; CESAL; CODEINFA-Corporación de Desarrollo Integral de la Familia; CoLibres-Movilidades Libres y Elegidas; Desarrollo Tecnológico y Servicios Comunitarios 'El Puente' S.C.; Egoaizia; Entreamigos-Lagun Artean; Fenix-Humanitarian Legal Aid; Fondation Vie Pour Tous; Fundación Haurralde; Fundación Pachamama; Fundación Pro Verde;

Fundación Vicente Ferrer; Gernika Gogoratuz-Centro de Investigación por la Paz; Gernikatik Mundura; HAHATAY Son Risas De Gandiol; Heartland Alliance International; ICLI-Ingeniería para la Cooperación; Justicia Alimentaria; KCD-Kultura, Communication y Desarrollo; Lumaltik Herriak; Médicos del Mundo Euskadi; medicusmundi Álava/Araba; medicusmundi Bizkaia; medicusmundi Navarra; Movimiento Tzuk Kim Pop; Mugarik Gabe; Mugen Gainetik; Mundu Bakean; MunduBat; Nazioarteko Elkartasuna-Solidaridad Internacional; ONG Flores de Kiskeya; ORMUSA-Organización de Mujeres Salvadoreñas por la Paz; Oscarte; Paz con Dignidad; Paz y Solidaridad Euskadi; SJM-Servicio Jesuita a Migrantes España; TATU Project; Xenofobiaren Aurka Taldea 'Berdinak Gara'; ZEHAR-Errefuxiatuekin; Yoga eta Sports for refugees.

Informazio gehiago

Zuzendaria

Iratxe Amiano Bonachea
✉ iratxe.amiano@ehu.eus

Garapena eta Nazioarteko Lankidetza Masterraren koordinazio teknikoa

Usune Zuazo Martín
✉ hegoa.inst.formakuntza@ehu.eus
✆ (34) 946 01 70 47

Nazioarteko Lankidetza eta Hezkuntza Askatzailea Etengabeko Prestakuntza *online* Masterra

Lankidetzari eta/edo hezkuntzari lotutako eta gizarte ekintzaren beste eremu batzuekin lotura duten pertsonen gaikuntza profesionala hobetzera bideratuta dago. Horretarako, honako elementu hauek beharrezkotzat jotzen ditugu: tokiko eta mundu mailako errealitatearen inguruko ikuspegi kritikoa zabaltzea; lankidetzari eta hezkuntzari lotutako eduki espezifikoak etengabe eguneratzea; eta irizpide etikoak eta gizarte hobekuntzako irizpideek gidatutako garapen profesionala ahalbidetzen duten irizpideak garatzea eta balioak txertatzea.

Prestakuntza osoak 60 ECTS kreditu ditu, eta horietatik 54 derrigorrezko 13 irakasgairi dagozkio. Gainerako 6 kredituak Master Amaierako Lanari (MAL) dagozkio.

Irteera profesionalak

Gobernuz kanpoko erakundeak, administrazio publikoak, hezkuntzaren arloko erakundeak (formalak eta ez formalak), elkarteak eta mugimendu sozialak.

Programan sartu ahal izango dira graduko unibertsitate titulua edo baliokidea (diplomatura, lizentziatura, ingeniaritza edo arkitektura) duten pertsonak. Ikasleak hautatzeko prozesuan, aintzat hartuko dira espediente akademikoa, motibazio gutuna, hizkuntzen ezagutza eta esperientzia profesionala. Halaber, onartua izateko, ezinbestekoa izango da curriculum vitaea eta alegatutako merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztea.

Atzerriko ikasleek behar besteko gaztelania maila egiaztatu beharko dute, bai ahoz, bai idatziz.

Oinarrizko informazioa

Irakaslekua	Campus Birtuala
Modalitatea	Birtuala
Hizkuntza	Gaztelania
Gutxi gorabeherako prezioa	2.940 €
Egutegia	Urritik azarora (13 hilabete)
Eskola orduak/iraupena	60 ECTS / 1 ikasturte

Prestakuntza programa

1. modulua: Nazioarteko Lankidetza

- Globalizazio Neoliberala Ikuspuntu Ekonomiko Batetik. 6 ECTS
- Garapenaren, lankidetzaren eta iraunkortasunaren inguruko eztabaida. 6 ECTS
- Gatazken, Lankidetzaren eta Garapenaren Azterketa Feminista. 4 ECTS
- Krisi Ekosoziala: Beherapena eta Ekofeminismoa. 4 ECTS
- Nazioarteko Lankidetzako Eragileak, Politikak eta Tresnak. 4 ECTS
- Intersekzionalitatea eta Parte-hartzea Gizarte-aldaketarako. 3 ECTS

2. modulua: Hezkuntza Askatzailea

- Ikerketa Parte-hartze Ekintza. 2 ECTS
- Garapenerako Hezkuntzatik Hezkuntza Askatzailearenganako Bidea. 5 ECTS
- Gizarte-eraldaketarako Teknologiak eta STEAM Hezkuntza, Hezkidetzaren Ikuspegitik. 4 ECTS
- Hezkuntza Askatzailearen Didaktika Kritikoa. 5 ECTS
- Hezkuntza Askatzailearen eta Gorpuztasuna. 3 ECTS
- Eztabaida Emantzipatzaileko Guneak: Elikadura-Subiranotasunaren eta Hirigintza Feministaren Indarra. 5 ECTS
- Hezkuntza Askatzaile Baterako Komunikazioa. 3 ECTS

Master amaierako lana. 6 ECTS

Informazio gehiago

Zuzendaria

Elena Martínez Tola
✉ elena.martineztola@ehu.eus

Itziar Mujika Chao
✉ itziar.mujika@ehu.eus

Etengabeko Prestakuntza Masterreko koordinazio teknikoa

Maitane Campos Sainz
✉ hegoa.inst.formakuntza@ehu.eus
✆ (34) 946 01 71 31

Nazioarteko Lankidetza edo Hezkuntza Askatzailea unibertsitate espezializazioak

Nazioarteko Lankidetzako eta Hezkuntza Askatzailea Etengabeko Prestakuntza Masterraren egitura modularrak aukera ematen du Unibertsitate Espezialitateko titulua lortzeko, moduluetako bat eta dagokion master amaierako lana egin ostean.

Modalitate horrek hainbat egoera pertsonalekiko eta profesionalekiko prestakuntza malguagoa eta moldagarriagoa eskaintzan du; izan ere, ikasketak eta lana, familia bizitza, konpromiso soziala edo beste ardura batzuk uztartzeko aukera ematen du. Gainera, pixkanaka aurrera egiteko eta prestakuntza ibilbidea ikasle bakoitzaren beharretara eta interesetara egokitzeko aukera ematen du, hasieratik master oso baten konpromisoa hartzeko beharra izan gabe.

Espezializazio bakoitzaren programak 30 ECTS kreditu ditu, eta horietatik 27 nahitaezko irakasgaiei dagozkie. Gainerako 3 kredituak Moduluko Master Amaierako Lanari dagozkio.

Sartzeko betekizunak master osoa egiteko bete beharrekoak dira.

Espezializazioetako bat egin ostean, aukera dago bestean matrikulatzeko, eta, horrela, espezializazio titulu bat eta master titulu bat lortzeko. Horrez gain, bi espezializazio titulu eta master titulua lortzeko aukera ere badago.

Bi aukera hauetakoren bat aukeratzen bada, gomendatzen da deialdi bakoitzean kredituak baliozkotzea eta master amaierako lanak prestakuntzaren koordinazio teknikoarekin zehaztea.

Nazioarteko Lankidetzako Espezializazioa

Edozein esparrutako profesionalak gonbidatzen ditu modu kritikoan pentsatzera nazioarteko lankidetzari buruz. Globalizazio neoliberala, nazioarteko gatazkak eta garapena bezalako gaiak aztertuta (ikuspegi feminista, ekosozial eta intersekzional batetik), honako xede hau du: lankidetzarako politikak, eragileak eta tresnak aztertzea; eta bizitzaren jasangarritasunera, justizia globalera eta herritarren partaidetzara bideratutako praktikak sustatzea.

Hezkuntza Askatzailea Espezializazioa

Hezkuntza Askatzailea Espezializazioak hezkuntza formalera eta ez formalera bereziki dedikatzen direnei lagun diezaieke, eta ez soilik prestatzera eta mundua eraldatzeko modu berrietan sentsibilizatzera.

Hezkuntza praktikatik begirada kritikoa proposatzen du, Ikerketa Ekintza Parte Hartzailea bezalako metodologietan oinarrituta eta justizia sozialaren eta hezkidetzaren zerbitzura dauden teknologiak txertatuta. Horretarako, honako gai hauek aztertzen ditu, besteak beste: elikagaien subiranotasuna, hirigintza feminista, gorpuztasuna espazio politiko gisa eta komunikazioa gizarte tresna gisa

Oinarrizko informazioa

Irakaslekua	Campus Birtuala
Modalitatea	Ikasketa birtualak
Hizkuntza	Gaztelania
Espezializazio bakoitzaren orientaziozko prezioa	1.470 €
Egutegia	Nazioarteko Lankidetza: urritik apirilera Hezkuntza Askatzailea: otsailetik urrira
Eskola orduak/iraupena	30 ECTS / 1 seihileko

Informazio gehiago

Zuzendaria

Elena Martínez Tola
✉ elena.martineztola@ehu.eus

Itziar Mujika Chao
✉ itziar.mujika@ehu.eus

Espezializazioen koordinazio teknikoa

Maitane Campos Sainz
✉ hegoa.inst.formakuntza@ehu.eus
✆ (34) 946 01 71 31

Garapenari buruzko Ikasketak Doktoregoa

Doktorego programa honen helburua da programako ikerketa lerroen arloan ikertzaileak prestatzea. Diziplinarteko doktorego programa da, eta globalizazioa, garapen prozesuak eta nazioarteko garapena modu kritiko eta zehatzean eta sakon aztertuko duten doktorego tesiak bultzatzen ditu.

Horretarako, programak doktorego tesia bukatzeko beharrezko babes metodologikoa eta zuzendaritza akademikoa eskaintzen dizkie ikasleei. Aldian aldiro antolatzen dira, batez ere ikaslez eta mintegi teorikoz eta praktikoz osatutako talde sustatzaile baten inplikazioari esker, prestakuntza prozesua aberasteko. Mintegi horietan parte hartzea aukerakoa eta doakoa da.

Sartzeko eskakizunak

Diziplina anitzeko eta sailarteko izaera du doktorego programak; hortaz, sartzeko bideak anitzak eta aldakorrak dira. Ez dago arlo edo eremu akademiko jakin batzuetako ikasleek solik sar daitezkeela ezartzen duen berariazko eskakizunik, araudiak ezartzen dituen izaera orokorreko baldintzak salbu.

Garapenari buruzko Ikasketak Doktoregoan izena emateko EHUko doktorego programa guztietan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu behar da:

Ikerketa lerroak

- Garapena, globalizazioa eta nazioarteko fluxu ekonomikoak.
- Nazioarteko erakunde ekonomikoak eta integrazio ekonomikoa.
- Garapenerako lankidetza eta ekintza humanitarioa.
- Ingurumena eta garapen jasangarria.
- Generoa eta Garapena.
- Garapenaren finantzaketa eta mikrokredituak.
- Landa garapena eta elikaduraren segurtasuna.
- Toki- eta lurralde-garapena.
- Migrazioak eta baterako garapena.
- Giza garapenerako eta iraunkortasunerako teknologia egokiak.
- Hezkuntza, garapena eta giza gaitasunak.
- Giza bazterkeria, pobrezia eta desberdinkeria.
- Gatazkak, segurtasuna eta garapena.
- Lan harremanak, giza eskubideak eta eskubide sozialak eta transakzio enpresak.

- Kultura, komunikazioa eta garapena.
- Ongizatearen eta garapenaren adierazleak eta neurketa.
- Parte-hartzea, demokrazia eta giza eskubideak.
- Ekonomia sozial eta solidarioa.

Programa Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) hainbat institutuk eta sailek sustatzen dute, eta diziplina arteko ikuspegia eta ibilbide akademiko, profesional eta konpromiso sozialeko zabala eskaintzen du: Hegoa Institutua, GEZKI Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Ekonomia Aplikatua IV Saila, Soziologia Saila, Soziologia 2 Saila eta Enpresaren Zuzenbidea Saila.

Informazio gehiago

Zuzendaria

Elena Martínez Tola
✉ elena.martineztola@ehu.eus

Doktorego Programaren koordinazio teknikoa

Maitane Campos Sainz
✉ hegoa.inst.formakuntza@ehu.eus
✆ (34) 946 01 71 31

EHU
Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua
Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional
hegoa
LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN Y SOLIDARIDAD
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO